

EAEko Kontratisten Erregistro Ofizialaren "Ziurtagiriaren Kopia" telematikoki eskuratzeko bidea



Kontratazio
publiko elektronikoa
Contratación
pública electrónica



Good Practice Label 2007

epractice.eu



Zerbitzu honi esker, Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundietako eta interesatuta dauden Udaletako kontratazio-tekNIKARIEK kontratazio-erregistroaren ziurtagiriaren kopia eskuratu ahal izango dute

www.euskadi.net/kontratazioa
www.contratacion.info



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

Eusko Jaurlaritzak Kontratisten Erregistro Ofizialaren aplikazioaren bertsio berri bat abian jarri du "Ziurtagiriaren Kopia" telematikoki eskuratzea ahalbideratzen duena.

Zerbitzua erabili ahal izateko baldintza bakarra lizenpek igorritako onartutako ziurtagiri elektronikoa bat izatea da (EAEko Administrazio Publikoaren Funtzionarioei dagokiena, alegia).

Eusko Jaurlaritzak kontratazio administratiboan aritzen diren teknikarien lana erraztu nahirik abian jarri du EAEko Kontratisten Erregistro Ofizialaren aplikazioaren bertsio berri bat. Bertsio berri horri esker "Ziurtagiriaren Kopia" telematikoki eskuratu ahal izango da.

Horrela, Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundietako, interesa agertzen duten Udaletako, erakunde autonomoetako eta zuzenbide publikoko bestelako erakundeetako funtzionarioek aukera izango dute EAEko Kontratisten Erregistro Ofizialaren datuak telematikoki kontsultatzeko. Era berean, Erregistroa "Ziurtagiriaren kopia" ere eskuratu ahal izango dute.

Zerbitzu berri hau erabili nahi dutenek lizenperen ziurtagiri elektronikoa bat izan beharko dute (EAEko Administrazio Publikoaren Funtzionarioei dagokiena, hain zuzen ere).

Eusko Jaurlaritzak horrelako zerbitzuak garatzen jarraituko du eta beharrezkoak diren hitzarmenak garatuko ditu interesa duten administrazioek Erregistroko datuak automatikoki kontsulta ditzaten makina-makina bidezko prozedura digitalen bitartez.

Kontratisten Erregistro Ofiziala Sektore Publikoko Kontratu legearen testuinguruan

2008.eko Urriak 30eko sektore publikoko legearen arabera, Autonomia Erkidegoek aukera izango dute Kontratisten Erregistroak izan eta sailkatze sistemak garatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan Erregistro horren eraginkortasuna EAEko Administrazio Nagusira hedatuko da, baita Foru Aldundietako Administrazioetara, Tokiko Administrazioetara eta haren erakunde autonomoetako eta zuzenbide publikoko bestelako erakundeetara ere.





EAEko Kontratisten Erregistro Ofizialaren eraginkortasuna

Kontratisten Erregistro Ofizialean izena ematearen helburua honako hau da: enpresaren izaera, jarduna, gaitasuna, ordezkaritza, gaikuntza profesionala edo enpresa-gaikuntza, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta sailkapena; era berean, erakutsiko du kontratazeko debekurik dagoen ala ez.

Kontratisten Erregistro Ofizialaren web orrietara sartzeko modua

Interesa duen orok Kontratisten Erregistro Ofiziala formatu fisikoan eta telematikokoan eskuratu dezake.

EAEko Foru eta Tokiko Administrazioek, erakunde autonomoek eta bestelako zuzenbide publikoko erakundeek telematikoki kontsultatu ditzakete EAEko Kontratisten Erregistro Ofizialeko datuak. Horretarako, lizenpek igorritako Funtzionarioaren Ziurtagiria behar da.

Informazio telematikoa edota ziurtagiri elektronikoak "Kontratisten Erregistro Ofiziala" atalaren bitartez lortu ahal izango dira, ondoren aipatzen diren webgune hauen bitartez:

- www.euskadi.net/kontratazioa
- www.contratacion.info





EAEko Kontratisten Erregistro Ofizialaren "Ziurtagiriaren Kopia" telematikoki lortzeko modua

"Kontratisten Erregistro Ofizialaren" web orrietan Erregistroan izena eman duten enpresen datuak kontsultatu daitezke. EAEko Administrazio Publikoaren funtzionarioek "ZIURTAGIARIAREN KOPIA ESKURATU" funtzioa erabili ahal izango dute. Funtzio horren bitartez, funtzionarioak enpresa jakin baten Erregistroaren Ziurtagiriaren KOPIA ikusi eta inprimatu dezake.

Bilaketa egiteko hainbat irizpide erabili daitezke, emaitzetan eskakizun guztiak betetzen dituzten enpresak agertuko dira.


1.- Identifikazio datuak

- 1.1. Inskripzio zenbakia
- 1.2. I.F.K. / I.F.Z.
- 1.3. Enpresaren izen soziala
- 1.4. Lurralde historikoa
- 1.5. Jarduera ekonomikoa

2.-Saikapenaren datuak

- 2.1. Enpresa mota
- 2.2. Saikapen taldeak (bat edo hainbat)
- 2.3. Saikapenaren azpitaldea
- 2.4. Saikapenaren kategoria
- 2.5. Adierazitako kategoria gainditzen duten enpresak aukeratzeko adierazlea

Bilaketa egiteko hainbat irizpide jartzen badira, sistemak eskakizun guztiak betetzen dituzten enpresen zerrenda erakutsiko du.





"Ziurtagiriaren kopia" eskuratzeko eskakizunak

Hauk dira eskakizunak:

- Eskuratu Izenpen funtzionario ziurtagiri elektronikoa. Zerbitzu berri hau erabili nahi dutenek Izenpen ziurtagiri elektronikoa izan beharko dute (EAEko Administrazio Publikoaren Funtzionarioei dagokiena, alegia).

Ziurtagiri hau ez badaukazu, eskatu zure erakundeari Izenpen eskaera izapidea egitea.

- Instalatu Izenpeko Ziurtagiri Elektronikoa zure PC-an. Ziurtagiriarekin batera, Izenpek CD bat igorriko du. Bertan, sinadura errekonozitzeko softwarea instalatzeko jarraibide guztiak jasotzen dira. Softwarea instalatu Izenpek emandako dokumentuan esaten den moduan.

Ez badaukazu Izenperen CDa, Izenperen webgunetik softwarea zuzenean deskargatzeko aukera daukazu. Horretarako:

- 1 Sartu Izenperen webgunean: www.izenpe.com
- 2 Alboko menuan aukeratu "Izenpe zerbitzuak"
- 3 Orriaren azpi eta erdialdean aukeratu "Programak beharrezkoa"
- 4 Eman orri horretan aipatzen diren lehenengo 5 pausuak

Era berean, softwarea instalatu ondoren, komeni da honakoo lan hauek burutzea:


- Egin Izenpeko sinadura-proba
- Arazoren bat edo akatsen bat antzemanen gero, jarri harremanetan Izenperen Harrera zerbitzuarekin.



"Badaezpada, egin ezazu Izenpeneko sinadura proba"

"Izenperen ziurtagiri digitalarekin lotuta dauden elementu guztiak instalatu ondoren komeni da sinadura egiaztatzeko proba bat egitea.

Horretarako, Izenperen webgunean sartu (www.izenpe.com) eta honako pausu hauek jarraitu:

- "Izenpe zerbitzuak" menua aukeratu
- Egin klik orriaren behe eta erdialdeko "Ziurtagiri digitalaren baliagarritasuna eta funtzionamendu zuzena egiaztatzea" estekan
- Egin sinadura-proba





Zerbitzu berri hau erabiltzeko lizenpen ziurtagiri elektronikoa behar da (EAEko Administrazio Publikoaren Funtzionarioei dagokiena)

Eusko Jaurlaritzaren Sarean sartzeko eta erregistroa kontsultatzeko beharrezkoak diren baliabideak prestatu ezazu

Erregistroan sartu eta ziurtagiriaren kopia lortu ahal izateko ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzaren sareetara sartzea. Horretarako, PC-aren TCP-444 komunikazio-atakak irekia egon behar du eta egiaztatu behar da sare informatikoen sarrera- eta babes-baliabideek (routerra, suebakiak, etab.) ez dutela moztzen harekiko komunikazioa.

Inolako zalantzarik baduzu, deitu Kontratazio Publiko Elektronikokoaren erabiltzaileentzako Arreta Zentrorra

Eusko Jaurlaritzak Arreta Zentro bat sortu du kontratazio elektronikoa egiteko laguntza eta arreta eskaintzeko.

Jar zaitez gurekin harremanetan ondorengo baliabideen bitartez:

- 945 016 298 telefonoa.
- Posta elektronikoa: laguntzakpe@ej-gv.es